

**Jarraitzen du bere bultzada komertzialean, eta finkatu egin du hazkunde aldia**

**EROSKI-K 90,3 MILIOI EUROKO EMAITZA POSITIBOA IZAN DU  
2025EKO HIRUGARREN HIRUHILEKOAN**

- **Salmenta gordinak 4.501 milioi eurotara iritsi dira**
- **Ebitda 251 milioi eurotara iritsi da, iaz baino %1,8 gehiago**

**Elorrio, 2025eko abenduaren 12a.**– [EROSKI](#)k ekitaldiko hirugarren hiruhilekoko kontuak itxi ditu (2025eko otsailaren 1etik urriaren 31ra), eta fakturazioak jarraitu dio azken ekitaldietako hazkunde ildoari. Hala, 4.501 milioi euroko salmenta gordinera iritsi da jardueraren bolumena.

Elikagaien arloko salmenta gordinak izan dira hazkundearen motor nagusi, %2,9 igo baitira 2024ko aldi berarekiko; hala, 4.270 milioi eurotara iritsi dira. Taldearen emaitza positiboa 90,3 milioi euroraino igo da, %36 gehiago iazko hirugarren hiruhilekoa baino. (*Azaroaren azken aldera, Eroski taldeak birfinantziazioa gauzatu zuen; beraz, urri arteko kontuetan ez dira islatu operazio horretako gastuak*).

Aurrerakada horretan, zerikusia izan du bai sustapenean jarritako indarrek eta bai taldeak 2021eko amaieratik hona prezioei eusteko egindako ahaleginek izandako harrera beroak, biak ere kostuen igoerak salmenta prezioetan ez erasateko helburuz harturiko neurriak. Gainera, nahiz eta aurrezpenean egindako inbertsio hori ustiaketa gastuak gero eta handiagoak ziren garaian egin den, taldeak lortu du horren inpaktua mugatzea efizientzian etengabe egindako hobekuntzei esker.

*"Hiruhilekoa iragartzen genuen bezala itxi dugu: gure eredu komertzialaren sendotasuna eta eraginkortasuna berretsita eta gure lehiakortasunaren posizionamendua indartuta. Era berean, kontsumitzaileei aukeratzeko gaitasuna eman diegu aukera sorta zabalarekin, eta apustu egin dugu marka propioaren eta produktu freskoen alde; hala, ezohiko kalitate-prezio harremana lortu dugu, eta, horrekin batera, aurrera jarraitu dugu eraginkortasuna hobetzeko ekimenak ezartzen, horietako asko analisirako tresna aurreratuetan eta adimen artifizialean bermaturik. Horren erakusgarri da urteko lehen bederatzi hilabeteetan Ebitdak 251 milioi euro iritsi izana, iaz epe berean baino kopuru handiagoa. Beraz, esan dezakegu ona dela gure jarduera operatibo eta komertzialaren bilakaera",* **esan du EROSKIko CEOak, Rosa Carabelek.**

## **Hazkundearen jarraipena eta finantza diziplina**

Begia 2026an jarririk, indarrean den plan estrategikoaren azken urtean, EROSKIk jarraitzen du ardatz gisa hartzen hazkunde errentagarritasuna eta zuhurtzia. Aurrerantzean ere, kooperatibak segituko du hurbileko eredu indartzen eta marka propioaren eta fabrikatzailearen alde apustu egiten. Era berean, digitalizazioa eta kanal askotarikoak bultzatzen jarraituko du, eta, hala, erosketa esperientzia eta balio kate osoaren efizientzia hobetzen. Bai eta iraunkortasunaren aldeko konpromiso irmoa egiten ere.

Finantza egitura ordenatuta daukan honetan, taldea aurrera doa bere hazkunde estrategian finantza diziplina zorrotz bati jarraituz, baliabideak dendak modernizatzera bideratuz eta lurralde estrategikoetan sarea handituz, iragarritako palanka helburuarekin bat.

## **EROSKiri buruz**

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan –Galiziatik Balearretara–, %12,7ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2024aren amaieran, 1.502 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita gasolindegia, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6,4 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 27.600 lagunek baino gehiago osatzen dute langile taldea; horietatik 9.000, berriz, bazkide eta jabe dira.